

Bilbon, 1997ko abenduaren 19an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
E. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
F. Krutwig,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
eta A. Urrutia
euskaltzainak
eta
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1997ko abenduaren 19an, goizeko hamarrak eta laurdenetan, hasi da Euskaltzaindiaren hileroko batzarra. Ezkerreko zutabea jasotzen dira bildu diren euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute honako euskaltzain jaun hauek: E. Larrek, P. Salaburuk eta L. Villasantek.

Aurreko agiriak onartzea

Azaroko batzar agiriei dagokienez, bi zuzenketa txiki eskatu dira: batetik, Davant eta Larreren izen-nahasketa zuzentzea eta, bestetik, ETBri buruz egiten den erreferentzia zehaztea eskatu du Charritonek, esanaz poztekoa litzatekeela ETB zazpi probintziek elkarrekin egin balezate.

Zuzenketa horiek kontuan harturik ontzat eman dira bi agiriak.

Ondoren, euskaltzainburuak eta beste zenbait euskaltzainek bilera aldi baterako utzi beharra izango dutenez eta arratsaldean ere lanean jarraituko denez, gai zerrendako ordena aldatzea proposatu da, hizkuntza-arauak azkenerako utziz. Horrela, bigarren gaitik hasi da bilkura.

2. Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa

Aurreko bilkuran aurkeztu zen fundazio hau sortzeari buruzko txostena, inork oharrik egin nahi bazuen. Oharrik ez dio inork egin eta, horrenbestez, aurkeztu zen bezala onartu da.

3. 1998ko batzar egutegia

J. L. Lizundiak aurkeztu du 1998rako batzar egutegia, Euskaltzaindiak 1998an egin nahi dituen bilkura arruntak eta ospakizun bereziak jasotzen dituenak.

4. Eskuartekoak

4.1. "Lan Onari" goraipamena L. Villasanteri

Aurreko bilera egunean eman zen honen berri. Hala ere, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean abenduaren 16an jasoa dator honi dagokion dekretua, non esaten baita "kul-

tura alorrean eta bereziki euskararen batasun-prozesuan bere eguneroko zeregin profesionala burutzean, sekulako ardua, etengabeko ahalegina eta ekimen aipagarria erakutsi dituela". Data aldaketa dela medio, gaur bertan izango da ospakizuna Leioan. Han izango dira euskaltzainburua, buruordea eta diruzaina Euskaltzaindiaren ordezkari gisa.

4.2. *BBK-Euskaltzaindia literatura sariak*

Aurten sarituak gertatu direnen izenen eta lanen berri eman da: "Txomin Agirre" saria (eleberria) Pello Esnalentzat izan da, *Nada de agua en Madrid* izeneko lanagatik. "Mikel Zarate" saio-saria J. Manuel Odriozolak irabazi du *Hizkuntza, kultura eta gizartea* lanarekin. "Toribio Altzaga" antzerki-sarian Karlos Linazasoro izan da saritua. Haren lana *Burdindenda*. Eta, azkenik, "Felipe Arrese Beitia" olerki-saria Mirari Garcia de Cortazarrek jaso du *Kea urruntzean* lanarekin.

4.3. *Gainerakoak*

Davanten aitaren heriotzaren berri eman du euskaltzainburuak eta denon izenean dolumina agertu.

Bestalde, Larrek istripua izan duela jakinarazi du euskaltzainburuak. Erori egin dela eta eritetxean dela.

J. A. Aranak hilaren 16an Deustuko unibertsitateak A. Irigoien euskaltzain zenari eskainitako omenaldian izan zela esan du hango berri laburra emanez.

Ondoren, Charritton jaunak hartu du hitza. Protesta egiten du gaurko, hots Euskaltzain osoek ohiko batzarra duten egunerako, Jagon sailak bilera deitu duelako. Galde egiten du ea zilegi den euskaltzain osorik gabe biltzea Jagon saila eta hau Euskaltzaindiaren izenean mintzatzea. M. Azkaratek erantzun dio esanaz hasiera batean Euskaltzaindiaren bilera Donostian izateko zela baina, aldaketaren berri izan bezain pronto Mendigureni argi adierazi ziola kontua. Dena den, euskaltzainburuak argi utzi du euskaltzain osoen bilera deitua dagoen garaian ezin dela inolako batzordearen bilerarik egin.

J. A. Aranak esan du bertsolari txapelketan izan zela hilaren 14an eta Andoni Egafia txapeldunari berak eman ziola Euskaltzaindiaren "Xenpela" saria.

Azkenik, J. San Martinek esan du berrikitan Erreterian izan dela eta han, herri horren izen ofiziala dela eta, adierazi zuela 1979ko herri izenen zerrenda ez duela Euskaltzaindiak aldatu. Behar bada, kontu honek ondorioren bat ekar dezakeela esan du eta euskaltzainak horren jakitun egotea nahi du. Udalak nahi duena egin omen dezake alor horretan, Euskaltzaindiak ez.

1. *Hizkuntza arauak*

1.1.1. *Exonomastikako Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak onartzea*

Aurkeztutako zerrendari inork ez bide dio egin idatzizko oharrik. Hala ere, eztabaida piztu da. M. Azkaratek galdetu du ea zergatik ematen den *Belerofonte*, adibidez, eta ez *Belerofon*. Sarasolak ere, zergatik ematen den *Martitz*. Planeta izendatzeko *Marte* erabiltzen omen da eta *Martitz* asmatua dela. Kintana ez da iritzi horretakoa. Honen ustez, *Martitz*-ek du maiztasunik handiena.

Dena den, zerrenda Euskara Batuko batzordetik zergatik ez den pasatu galdetu da. Peillen jaunak ere parte hartzen du eta zerrendak espainolaren morrontza handiegia erakusten duela esan du. Eztatidari nolabait amaiera emateko, prozedura kontuak direlarik tartean, E. Knörrek proposatzen du zerrenda batzordera eramatea Euskaltzaindiak onartu baino lehen. Proposamen hau bozkatu da eta honako emaitza izan da: 14 boto alde, bat kontra eta abstentzio bat. Horrenbestez, batzordeak aztertuko du lehenbizi eta hurrengoan ekarriko da atzera batzarrera.

1.2.1. *Hiztegi Batuko irudialdatu-jorraztaile zerrenda onartzea*

Euskaltzainen oharrak aztertzeari ekin aurretik, M. Azkaratek, batzordearen ize-nean, zerrendari gehiketa bat egitea proposatu du. *Iruzkina* sarreran *iruzkina* egin azpigarra gehitzea, alegia. Adibide bat ere eramango luke: *Testu honi iurzkina egin dio* bezalako bat.

Ondoren euskaltzainen oharrak aztertu dira. Lehendabizi, X. Kintana jaunarenak.

Itsatsdun / itsatsgabe grafiak ez zaizkio egokiak iruditzen, Euskaltzaindiak *akastun, bihoztun* eta horrelakoak jadanik onartuak dituenez. Eztatida labur bat izan da eta, honen ondorioz, ohargileak berak erretiratu egin du oharra.

Itsas gaztaina = Indi-gaztaina dela eta, batzordeak onartu du oharra: *Indi gaztaina* bere lekuan erantsiko zaio zerrendari, marrarik gabe.

Zerrendan ageri diren tipografi hutsez gainera (*itsasomtzi* pro *itsasontzi, itzaingolpar* pro *itzaingo Ipar.*, *izozki(-)denda, janari(-)denda*), honako ohar hauek ere onartu dira: *itsulapiko* hitzari alboan ezarriko zaio *eltzeitsu; itxuroso* sarreran zer adiera duen esango da; *jakinzale* hitza zerrendatik kenduko da, ez baita beharrezko eta, gainera, grafia problemak ditu; *janaritegi* dela eta, *janariak gordetzeko tokia* esan nahi duela adieraziko da.

Jarraigo hitza zerrendatik kentzea onartu da.

Jarraitasun hitzaren inguruan ere eztabaida luze xamarra izan da. Batetik, *jarrai* hitzak, adjektibo gisa, ez du tradizioirik. Beraz, *jarraitasun* baino hobeki leudeke *jarraitutasun* eta *jarraitutasun*. Baina, bestalde, haplogia kontua izan liteke. Horregatik, azknean, honela onartu da ematea: *jarrai(tu)tasun* 'jarraitua denaren nolakotasuna'. *Jarraitutasun* sarrera zerrendan ageri den bezala utziko da.

Jaundone- hurrengo bilerarako uztea proposatu du E. Knörrek eta hala onartu da.

Jausti/jeitsi bereiztea iradokitzen du Kintanak baina ez da onartu.

Jeinu hitzaz batzordeak zerrendan ematen dena zuzentzea proposatu du: *Ipar. 'antzea, trebetasuna'* besterik ez esatea. Beraz, horren ondotik datorrena kentzea. Hala onartu da. *Jenio* hitzari buruz, berriz, Heg. dela esatea proposatzen da eta, adibide gisa, 'jenio txarra' bezalako bat ezartzea. Proposamen hau bozkatu da, honako hau izan delarik emaitza: 12 boto alde, bat kontra eta beste bat, abstentzio.

Jesa(i)ten-i buruz, eta hitzek batasunaren izenean ordaindu behar duten "bidesaria" dela medio, tarteko *-i-* hori bidezkoa ote den zalantza azaldu da. B. Oihartzabalek argitu du kontua esanaz printzipioa bozkatu dagoela eta, printzipio hori gogoan, aurrera egin daitekeela. Horrenbestez, dagoen bezala utzi da. Bide batez, zerrendan ageri diren zen-

bait aditzi erantsi zaizkien etorkizuneko adizkiak lekuz kanpo daudela esan da eta, beraz, erreferentzia horiek kendu beharrekoak dira denetan.

Azkenik, *jornal* sarreran hitz honentzat maila jasoko ordaina ematea eskatzen du X. Kintanak. Ez da beharrezko ikusi.

Ondoren E. Knörren oharrak eztabaidatu dira. *Irudipen*-i 'nire irudipenez' esatera gehitzea ez da onartu. *Isurkari* (izen) eta *likido* (izenondo)-ren artean egitea proposatzen den bereizketa ez da onartu. Ez da onartu *itxura*-ren sarreran 'itxura eman' esapidea sartzea ere. *Japoniar*, jentilizioa denez, ez da onartu oraingo zerrendan sartzea. Bigarren itzulirako utzi dira, halaber, *istapeka*, *jariakortasun*, *jariodun*, *jauki* eta *irudi* (*bezala* adieran). *Jesulagun/jesuita* hitzen artean lehenbizikoa hobesteko proposamena ez da onartu.

Honako ohar hauek, berriz, onartu dira: *isil-poltsa* sartuko da. *Itzarrik* forma Bizk. dela esango da. *Ixi Bizk.* = *ixo* ere onartu da. Baita honako hauek ere: *Izu-laborri*; *jantxakur*; *jarduera*; *jaugin Ipar.* 'joera'; *jendekin* 'jendartea atsegin zaiona'.

Jardun-en sarreran izena ere izan daitekeela adieraziko da, 'solasa' adierarekin. *Jargoi* sarrerari aldamenen *tronu* ezarriko zaio. *Izen*-en sarreran, bi adierazpide emango dira: 1. *Xabier du izena*; 2. *haren izen ona zikindu*.

Jentilizio/gentilizio eztabaida *gj* auzia argitzen denerako uztea erabaki da. Urtarri-leko bileran argitzeko utzi da, berriz, goian esan bezala, *jaundonil/jondoni* auzia.

A. Urrutiaren oharrak direla eta, onartu dira honako hauek: *iruzkingile*, *isilgorde/isilgordeka*, *isiotu* 'argia, sua piztu', *isurketa*, *izarniarazi*, *izendun*, *jakinarazpen*, *jaraunsle* eta *jesapen*.

Itsasikara hitzaz, nola idatzi eztabaidatu da. Bi bozketa ere egin dira. Lehenbizikoan ez da gauza argirik atara: lau, bereiz idaztearen alde, hiru, baturik eta sei boto zuri. Bigarrenean, zortzi izan dira baturik idaztearen alde, lau bereiz idaztearen alde eta hiru zuri. Horrenbestez, azkenean hitz bakar batean idaztea onartu da: *itsasikara*.

Baina, lexikaltze maila desberdina dela medio, *itsas labar* horrela idaztea onartu da.

Izan-en sarreran hitz hori izena ere izan daitekeela adieraztea onartu da.

Ohargileak *janiza*-ren sarreran esanahiaren berri ere ematea eskatzen du. Hala onartu da. Beraz, sarrera hori honela geratu da: *janiza Ipar. gose handia*.

Bigarren itzulirako utzi dira *isastu*, *isilbidez/isilbidezko*, *itsaso-lehorreko*, *izakin*, *jabari*, *jabeldu*, *jarduketa* eta *jasanbera*.

Azkenik, zerrendan eztabaidagai gisa emandako sarrerak eztabaidatu dira.

Ene irudiko-ri buruz, honako hau proposatu da eta onartu: *ene iduriko Ipar* = *nire ustez*. Eta *irudiko*-ri beste bigarren azpi-sarrera bat emango zaio: 2. *genitiboarekin* 'ustez', *ene irudiko*.

Isilixil eztabaida etorri da ondoren. Batasuneko hiztegiak *isil* bultzatu zuela gogorarazi da. Bestalde, B. Oihartzabalek esan du *-x-* grafia onartua dela hipokoristiko gisa. Bozkatu da eta hau izan da emaitza: *isil*-en alde zazpi boto, *ixil*-en alde lau eta bi boto zuri. Beraz, *-s-* grafiarekin segitzea onartu da.

Itxi-ren sarrerari bigarren partea ezabatuko zaio. Honela utziko da: *itxi, ixten*.

Iturri-belar hitzaren latin deitura aldatuko da: *Adiantum capillus-veneris* barik *Nasturtium officinale* omen da.

1.2.2. *Hiztegi Batuko josi-koala zerrenda onartzea*

Hurrengo zerrendari ekin dio ondoren Euskaltzaindiak. Lehenbizi, X. Kintanaren oharrak izan dira aztergai.

Judizio hitzaren sarrera aldatzea ez da onartu. Bide batez, *ujamendu, ujuatu* eta *juje* sarreteran ageri diren *h*. ohar guztiak ezabatu egingo dira. Ez da onartu *kafetxe**, *kar-net** hitzei esleitu zaizkien sarrerak aldatzea ere. *Kastigatu*-ren sarreran Heg. oharra ezarriko da. *Katagorri*-ren sarrera ez da aldatuko, ez eta ere *kiebra*-rena, *kitarra**-rena, *klar*, *klarki*, *klaru*-rena ere.

*Karteldeg** sarrerak ere eztabaida luzea ekarri du. Ohar hau izango du: *espainolezko 'cartelera' esateko, e. ikuskizunak*.

*Kapelategi** sarrera kendu egingo da.

Kaliferri sarrarazteko eskaria erretiratu egin du ohargileak.

Karro sarreraren kontra ageri da ohargilea baina, azkenean ohar hau erretiratu egin du.

Kateto hitza sartzea onartu da.

Kanario/kanari auzia bozkatu egin da. *Kanario*-ren alde zazpi boto izan dira. *Kanari* nahiago dutenak, sei. Azkenean, *kanari(o)* gisa ematea bozkatu da. Proposamen honen aldeko 12 boto izan dira. Hau onartu da, horrenbestez.

E. Knörr-en oharren eztabaidak honako emaitza hau izan du. Onartu da *justu* sarreteran, aditzondo denean, *Herr.* dela adieraztea. *Kaixo* lagunartekoa dela adieraziko da. *Kaltzara* sarrerari leku egingo zaio: *kaltzara**, "*e. galtzada*" ezarriko da. *Kanpatu*, da aditza dela esango da. *Kanpora* ere sartuko da. *Kanpoeder* sartzea onartu da. Baita *kanpolarrosa* ere, baina hau Bizk. oharra alboan duela. *Karesa/karesatu* hitzak sartuko dira, *Ipar. Herr. 'fereka/ferekatu'* oharrarekin.

Bigarren itzulirako utzi dira *junta, kandelario, kantinier(t)sa* eta *karaktere*.

Ez da onartu *kabitu, kaina, kakazu* eta *kakalarritu* hitzak sartzea. Azkena ez omen da inon ageri. *Kale*-ri aldamenean "=karrika" ezartzea ere ez da ontzat eman, ez eta ere *kalte*-ren sarreran *kaltek hartu* moduko adibidea ezartzea.

Bilera arratsaldeko bost eta erdiak aldera eman da amaitutzat. E. Knörr-en oharrak aztertzea ez da amaitu. *Karesa+karesatu*-ri buruzkoa izan da ikusi den azkena.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga